



BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA: FUNTZIONAMENDU-ARAUAK ETA INFORMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA

1. SARRERA

Barneko Informazio Sistema (BIS) komunikazioak jasotzeko barne-kanalak eta informazioak kudeatzeko prozedurak osatzen duten multzo integratua da, eta Sistemaren Arduradun baten agintaritzapean funtzionatzen du.

Haren helburua da bermatzea arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 3. artikuluan aipatzen diren pertsonak ezagutzen dituzten jokabide irregularrak komunikatu ahal izatea, eta jokabide horien jarraipen eraginkorra egingo zaiela, independentzia-, konfidentzialtasun- eta segurtasun-berme guztiak eskainiz, bai eta Barneko Informazio Sistemara jotzen dutenek errepresaliarik jasango ez dutela ere.

Barne Informazio Sistemaren helburua da lan-testuinguru edo testuinguru profesionalaren baitan legearen 2. artikuluan aurreikusitako ekintzak edo ez-egiteak hautematen dituzten eta bertan araututako mekanismoen bidez horiek jakinarazten dituzten pertsonak babestea.

Beraz, arau-hausteak edo jardunbide desagokiak prebenitzeko, detektatzeko eta konpontzeko sistema bat da, balizko informatzaileek eskura duten informazioa erraz eta konfidentzialtasun osoz eman ahal izatea bermatzen duena, Arrasateko Udalak, ahal den guztietan, arazoa ikertu eta konpondu ahal izan dezan.

2. APLIKAZIO-EREMU MATERIALA

Arrasateko Udalean gertatzen diren irregulartasun hauek jakinarazi ahal izango dira hemen araututako BISren bidez:

- Arau-hauste penal edo administratibo astunak edo oso astunak, Espainiako legediaren arabera, eta, nolanahi ere, Ogasun Publikoari eta Gizarte Segurantzari kalte ekonomikoa eragiten dietenak.
- Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteak, baldin eta:
 - o Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan zerrendatutako egintzen aplikazio-eremuan sartzen badira.
 - o EBren finantza-interesei eragiten badiete, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 325. artikuluaaren arabera, edo
 - o Barne-merkatuan eragina dutenak, EBFTren 26. artikuluaaren 2. apartatua jasotzen den bezala.

3. APLIKAZIO-EREMU PERTSONALA



3.1. Arrasateko Udalaren esparruko lan- edo lanbide-testuinguru batean arau-hauste horien berri izan duten pertsonak aurkeztu ahal izango dute 2. puntuari aurreikusitako arau-hausteei buruzko informazioa, honako hauek barne hartuta betiere:

- Arrasateko Udaleko enplegatu publikoak edo besteren konturako langileak.
- Arrasateko Udalari zerbitzuak ematen dizkioten profesionalak.
- Akziodunak, partaideak eta enpresa baten administrazio-, zuzendaritza- edo gainbegiratze-organoko pertsonak, exekutiboak ez diren kideak barne.
- Kontratista, azpikontratista eta hornitzaileen gainbegiratze eta zuzendaritzapean lan egiten duen edozein pertsona.

BIS aplikatuko zaie, halaber, amaitutako lan- edo estatutu-harreman baten esparruan lortutako arau-hausteei buruzko informazioa publikoki ezagutarazten edo jakinarazten duten informatzaileei, boluntarioei, beka-duneei, prestakuntza-aldian dauden langileei (ordainsaria jasotzen duten edo ez kontuan hartu gabe), bai eta oraindik lan-harremana hasi gabe dutenei ere, arau-hausteei buruzko informazioa hautaketa- edo kontratu-aurreko negoziazio-prozesuan lortu den kasuetan.

3.2. Halaber, otsailaren 20ko 2/2023 Legean informatzailearentzat aurreikusitako babes-neurriak honako hauei aplikatuko zaizkie:

- Langileen legezko ordezkariak, informatzaileari aholkuak eta laguntza emateko eginkizunak betetzen ari direnean.
- Informatzailearekin harremana duten eta errepresaliak jasan ditzaketen pertsona fisikoak, hala nola lankideak edo haien senideak.
- Informatzailea lanean ari den erakundearen esparruan prozesuan hari laguntzen dioten pertsona fisikoak.
- Pertsona juridikoei, baldin eta informatzaileak pertsona horientzat lan egiten badu edo beste edozein harreman-mota badu lan testuinguru baten edo partaidetza esanguratsua badu.

4. BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIAK

Ezartzen den sistemak ezaugarri hauek ditu:

- Aukera ematen du pertsona guztiek arau-hausteen kategoria jakin batzuen berri emateko.
- Modu seguruan diseinaturik, ezarrita eta kudeatuta dagoenez, informatzailearen eta komunikazioan aipatutako edozein hirugarrenaren identitatearen konfidentzialtasuna bermatzen da, bai eta hura kudeatzeko eta izapidetzeko egiten diren jarduerena eta datuen babesarena ere, baimenik ez duen pertsonarik sar ez dadin.
- Idatzizko komunikazioak aurkezteko aukera ematen du.
- Erakundearen barruan ezar daitezkeen barneko informazio-kanalak integratzen dira.
- Bermatzen da aurkeztutako komunikazioak modu eraginkorrean tratatuko direla dagokion erakundean eta organismoan, irregulartasun posiblearen berri izaten lehena erakundea bera izan dadin.
- Barneko Informazio Sistemaren Organo Arduradun bat izendatu da buru.



- Informatzailearen informazio eta defentsarako Barne Sistemaren printzipio orokorrak behar bezala argitaratuko dira Arrasateko Udalean.
- Jasotako informazioak kudeatzeko prozedura bat onartu da.
- Erakundearen beraren eremuan informatzaileak babesteko bermeak ezartzen dira.
- Jasotako informazioen eta sortu dituzten barne-ikerketen erregistro-liburu bat dago, eta 2/2023 Legean aurreikusitako konfidentzialtasun-baldintzak bermatzen dira, kasu guztietan.

5. BARNEKO INFORMAZIO-KANALA (BIK)

Otsailaren 20ko 2/2023 Legean (Arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena) ezarritakoaren babesean, Barneko Informazio Kanala sortzen da. Kanal hori 2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotako ekintzak edo ez-egiteak biltzen dituen informazioa jasotzeko bide egokitzaletan jotzen da.

Konfidentzialtasuna kanal horren funtzionamendurako funtsezko baldintza da. Modu seguruan disainatu eta kudeatuko dira, informatzailearen eta informazioan aipatutako hirugarren pertsonen identitatearen konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta informazioa kudeatzeko eta izapidetzeko egiten diren jarduketan konfidentzialtasuna bermatzeko ere.

Barneko informazio Sistemaren arduradunak kudeatuko du barne-kanalaren funtzionamendua, eta bermatuko du errepresaliarik ez dagoela eta informatzailearen konfidentzialtasuna gordeko dela.

6. BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMAREN ORGANO ARDURADUNA

- 6.1. 2/2023 Legearen 8. artikuluan xedatutakoa betez, «Barne Informazioko Sistemaren Organo Arduraduna» izendatzen da kide anitzeko organo bezala, eta honako hauek osatzen dute: Udal Idazkari nagusiak, Kontu-hartzaile nagusiak, Diruzainak, Giza Baliabideen arduradunak eta Gizarte Zerbitzuen arduradunak.

Organo horren ardura izango da sistemaren funtzionamendu egokia bermatzea, horretarako babes-neurriak hartzea eta arau-hausteen jakinarazpenak jaso, izapidetu eta ikertzeko prozedurak kudeatzea.

Informazioaren Barne Sistemaren Organo Arduradunari (IBSOA) dagokio sistema osoa kudeatzea jarduketa-eremu bakoitzean, eta informazioak arduraz izapidetzea. Erakundearen edo organismoaren gainerako organoekiko modu independentean eta autonomoan beteko ditu bere eginkizunak, ezin izango du inolako jarraibiderik jaso eginkizun horiek betetzean, eta eginkizun horiek betetzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak izan beharko ditu.

IBSOAk konfidentzialtasun- eta segurtasun-berme guztiak eskainiko ditu erabiltzen duen informazioari dagokionez.



- 6.2. IBSOArako kideen izendapena eta kargu-uztea Informatzailea Babesteko Agintaritza Independenteari (IBAI) jakinarazi beharko zaizkio, edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoetako agintari edo organo eskudunei, bakoitzak bere eskumenen esparruan, hurrengo hamar egun balioduneko epean, eta, kargua uzten badute, zergatik utzi duten zehaztu beharko da.
- 6.3. IBSOArako honako funtzio hauek dagozkio:
- a) Bere kabuz edo izendatutako langileen bitartez, dagozkion egiaztapen-lanak egitea.
 - b) Komunikazioak kudeatzea.
 - c) Egitateak egiaztatzeari amaiera ematen dion gomendioa egitea.
 - d) Horretarako sortutako datu pertsonalen fitxategiaren kudeaketa operatiboa bere gain hartzea.
 - e) Pertsona eta enplegatu publikoek zuzenbidearen aurkako balizko jokabideen berri isilpean eman ahal izatea, fede onez komunikatzen duenari kalterik eragin gabe.
 - f) Gertakariak egiaztatzeako prozesuan behar den babesa ematea kargudunei eta gainerako enplegatu publikoei.
 - g) Urteko memoria egitea eta Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztea.
 - h) Balio etikoen, jokabide-arauen eta gobernu onaren aurkako prestakuntza-neurriak eta jarduerak prebenitzeko neurriak bultzatzea.
 - i) Zuzenbidearen, arauen eta aipatutako balioen aurkako jokabideen inguruan egon daitezkeen interpretazio-zalantzak ebaztea.

7. INFORMAZIOAK KUDEATZEKO PROZEDURA

7.1. INFORMAZIOA JASOTZEA

- a) Informazioa modu anonimoan eman daiteke. Bestela, informatzailearen nortasuna erreserbatuko da, eta ezin izango zaie hirugarrenei jakinarazi.
 - b) Informazioa idatziz, posta arruntez edo informazioaren barne-kanalera zuzendutako edozein bitarteko elektronikoz eman ahal izango da, edo ahoz, telefonoz edo ahots-mezularitzaren bidez. Informatzaileak eskatuta, aurrez aurreko bilera baten bidez ere aurkeztu ahal izango da, gehienez ere zazpi eguneko epean. Hitzeko komunikazioaren kasuetan, komunikazioa grabatu egingo dela ohartaraziko zaio informatzaileari, eta haren datuen tratamenduaren berri emango zaio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.
- Ahozko komunikazioaren kasuan, aurrez aurreko bilera, telefono bidezko edo ahots-mezularitzako sistemaren bidezko aukerak barne, Barneko Informazio Sistemaren arduradunak honela dokumentatu beharko du: elkarrizketa grabatuz formatu seguru,



iraunkor eta irisgarrian, edo elkarrizketaren transkripzio oso eta zehatz baten bidez, hura tratatzeko ardura duten langileek egindakoa.

Informazioa aurkeztean, informatzaileak helbide, helbide elektroniko edo leku seguru bat adierazi ahal izango du jakinarazpenak jasotzeko, eta, era berean, berariaz uko egin ahal izango dio informazioaren ondorioz Barneko Informazio Sistemaren arduradunak egindako jarduketan edozein komunikazio jasotzeari. Datuen babesari buruzko araudiaren arabera dagozkion eskubideak alde batera utzi gabe, informatzaileari aukera emango zaio mezuaren transkripzioa sinaduraren bidez egiaztatzeko, zuzentzeko eta onartzeko.

- c) Informazioa aurkeztu ondoren, Informazioa Kudeatzeko Sistemari erregistratu da, eta identifikazio-kode bat esleituko zaio. Informazioa Kudeatzeko Sistema datu-base seguru batean egongo da, eta Barneko Informazio Sistemaren Organo Arduradunak soilik izango du sarbidea. Bertan, jasotako komunikazio guztiak erregistratu dira, honako datu hauek betez:

- Jasotze-data
- Identifikazio-kodea
- Egindako jarduerak
- Hartutako neurriak
- Itxiera-data

- d) Informazioa jaso eta gehienez ere bost egun balioduneko epean, jaso izanaren adierazpena egingo da, salbu eta informatzaileak berariaz uko egin badio ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeari, edo Barneko Informazio Sistemaren arduradunak arrazoiz uste badu informazioaren hartu-agiriak informatzailearen nortasuna babestea arriskuan jarriko lukeela.

7.2. ONARPEN-IZAPIDEA (BETEKIZUNAK)

Informazioa erregistratu ondoren, Barne Informazio Sistemaren arduradunak egiaztatu beharko du ea hark 2/2023 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren egitateak edo jokabideak azaltzen dituen.

Aurretiazko azterketa hori egin ondoren, arduradunak, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, informazio-erregistroan sartzen den egunetik zenbatzen hasita, honako erabaki hauetakoren bat hartu beharko du:

- a) Komunikazioa ez onartzea, honako kasu hauetakoren batean:
- Kontatutako gertakariak inolako egiantzik ez dutenean.
 - Azaldutako gertakariak 2/2023 Legearen aplikazio-eremuan sartutako ordenamendu juridikoa urratzen ez dutenean.
 - Komunikazioak argi eta garbi oinarriarik ez duenean edo, IBSOaren iritziz, delitu bat eginez lortu izanaren arrazoizko zantzuak daudenean. Azken kasu horretan, ez onartzeaz gain, delitutzat jotzen diren egitateen zerrenda zehatza igorriko zaio Fiskaltzari.



- Komunikazioak arau-hausteei buruzko informazio berri eta esanguratsurik ez duenean, aurreko komunikazio batekin alderatuta, zeinari buruz prozedurak amaitu diren, salbu eta bestelako jarraipen bat justifikatzen duten izatezko edo zuzenbidezko inguruabar berriak gertatzen direnean. Kasu horietan, IBSOAK ebazpen arrazoitua jakinaraziko du. Ez onartzea informatzaileari jakinaraziko zaio hurrengo bost egun baliodunen barruan, salbu eta komunikazioa anonimoa bada edo informatzaileak uko egin badio Barneko Informazio Sistemaren komunikazioak jasotzeari.
- b) Jakinarazpena izapidetzeko onartzea.
Izapidetzeko onartu dela informatzaileari jakinaraziko zaio hurrengo bost egun baliodunen barruan, salbu eta komunikazioa anonimoa bada edo informatzaileak uko egin badio Barneko Informazio Sistemaren komunikazioak jasotzeari. Une horretan hasiko da prozeduraren instrukzioa.
- c) Informazioa berehala bidaltzea Fiskaltzari, egitateek delitu izan daitezkeenean, edo Europako Fiskaltzari, egitateek Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dietenean.
- d) Eskuduntzat jotzen den agintaritza, erakunde edo organismoari bidaltzea jakinarazpena, izapidetzeko.

7.3. INSTRUCCIÓN

Jasotako eta onartutako komunikazioak IBSOAK aztertuko ditu, eta hark komunikazioaren barne-instrukzioa erabaki ahal izango du, informazio gehiago lortzeko eta jasotako komunikaziorako biderik egokiena zein den zehazteko. Instrukzioak barnean hartuko ditu azaldutako egitateen egiantza egiaztatzeko jarduketa guztiak, komunikazioa onartu ondoren.

Informazioak eragindako pertsonak informazioaren berri izango duela bermatuko da, bai eta labor azaldutako gertaeren berri izango duela ere. Horrez gain, alegazioak idatziz aurkezteko duen eskubidearen eta datu pertsonalen tratamenduaren berri emango zaio. Hala eta guztiz ere, informazio hori entzunaldiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta uste bada informazio hori aldeztetik emateak erraztu egin dezakeela frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea.

Eraginpeko subjektuei ez zaie inola ere informatzailearen identitatearen berri emango, eta ez da jakinarazpenerako sarbiderik emango. Instrukzioan zehar, komunikazioaren berri emango zaio ikertuari, gertakarien zerrenda laborra emanez. Informazio hori entzunaldiaren izapidean eman ahal izango da, baldin eta ulertzen bada aldeztetik aurkezteak erraztu egin dezakeela frogak ezkutatzea, suntsitzea edo aldatzea.

Alegazioak idatziz aurkezteko eskubideari kalterik egin gabe, instrukzioak barnean hartuko du, ahal den guztietan, eragindako pertsonarekin elkarriketa bat, eta elkarriketa horretan, errugabetasun-presuntzioa erabat errespetatuz betiere, egitateen bertsioa azaltzeko eta egokitzen jotzen dituen frogabideak emateko gonbita egingo zaio.



Eragindako pertsonaren defentsa-eskubidea bermatze aldera, pertsona horrek espedienteak ikusi ahal izango du informatzailea identifika dezakeen informazioak eman gabe, eta edozein unetan entzun ahal izango zaio, eta abokatuaren laguntzarekin agertzeko aukera duela ohartaraziko zaio.

IBSOAri laguntzen dioten eta ikerketa-jarduerak egiten dituzten funtzionarioek sekretupean gorde beharko dituzte ikerketa hori dela eta ezagutzen dituzten informazioak.

Arrasateko Udaleko langile guztiek Barneko Informazio Sistemaren arduradunarekin lankidetzan jardun beharko dute, eta izapidetzen ari diren prozedurekin lotutako dokumentazioa, datuak edo edozein informazio emateko egiten zaizkien errekerimenduei erantzun beharko diete, eskatzen zaizkien datu pertsonalak barne.

7.4. JARDUKETAK AMAITZEA

Jarduketa guztiak amaituta, IBSOAK txosten bat egingo du, gutxienez honako hauek jasoko dituenak:

- Azaldutako gertakarien azalpena, komunikazioaren identifikazio-kodearekin eta erregistro-dataarekin batera.
- Komunikazioaren sailkapena, izapidetzeko lehentasuna duen ala ez jakiteko.
- Egitateen egiantza egiaztatzearen egindako jarduketak.
- Instrukzioan lortutako ondorioak eta eginbideen eta horien oinarri diren zantzen balorazioa.

Txostena egin ondoren, IBSOAK honako erabaki hauetakoren bat hartuko du:

- a) Espedientearen artxibatzea; informatzaileari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, eragindako pertsonari. Kasu horietan, informatzaileak legean aurreikusitako babeserako eskubidea izango du, salbu eta, instrukzio-fasean egindako jarduketaren ondorioz, ondorioztatzen bada informazioa, egindako jarduketak ikusita, ez zela onartu behar, aurretik aurreikusitako arrazoiren bat dagoelako.
- b) Fiskaltzari igortzea, hasiera batean egitateak delitu izan daitezkeelako zantzurik ikusten ez bada ere, instrukziotik hala ondorioztatzen bada. Delituak Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten badie, Europako Fiskaltzari igorriko zaio.
- c) Jarduketa guztiak izapidetzeko eskuduntzat jotzen den agintaritzak, entitate edo organismoari helaraztea.

Jarduketak amaitzeko eta informatzaileari erantzuteko epea, hala badagokio, ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan, informazioa erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita, edozein dela ere erabakia, informatzaileari jakinaraziko zaio, salbu eta horri uko egin badiu edo komunikazioa anonimoa bada. Epe hori beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da gehienez, konplexutasun berezikoak badira.

Jarduera hauetan IBSOAK hartutako erabakien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, ezta administrazioarekiko auzibidean ere. Hala ere, adierazitako



gertaeren ondorioz ireki daitekeen zehapen-prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka administrazio-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke.

IBSOAk urteko memoria labur bat egingo du, eta bertan, estatistika-ondorioetarako, jasotako salaketei eta aurreko ekitaldian hartutako erabakiei buruzko zenbakizko datuak azalduko dira.

8. INFORMATZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Informatzaileek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Komunikazioa modu anonimoan edo ez-anonimoan egin nahi duen erabakitzea; bigarren kasu horretan, informatzailearen nortasuna erreserbatzea bermatuko da, hirugarren pertsonari jakinarazi ez dakien.
- b) Komunikazioa ahoz edo idatziz egitea.
- c) Barne Informazio Sistemaren arduradunak ikerketaren inguruan egiten dituen komunikazioak jasotzeko helbidea, helbide elektronikoa edo leku segurua adieraztea.
- d) Barneko informazio-sistemaren arduradunaren jakinarazpenak jasotzeko uko egitea, hala badagokio.
- e) Barneko Informazio Sistemaren arduradunaren aurrean agertzea, bere ekimenez edo hark eskatzen dionean, eta, hala badagokio, abokatuaren laguntza izatea, egoki iritziz gero.
- f) Barneko informazio-sistemaren arduradunari eskatzea agerraldia bideokonferentzia bidez edo beste bitarteko telematiko seguru batzuen bidez egin dezala, informatzailearen identitatea eta komunikazioaren segurtasuna eta fideltasuna bermatzeko.
- g) Datu pertsonalak babesteko legeriak ematen dizkion eskubideak baliatzea.
- h) Salaketaren izapidetzearen egoera eta ikerketaren emaitzak ezagutzea.

Betebeharrak honako hauek izango dira:

- a) Barneko informazio-kanala erabiltzen duten pertsonak jakinarazten duten informazioaren ziurtasunari buruzko zantzu arrazoizkoak edo nahikoak izan behar dituzte, eta ezin izango da komunikazio generikorik, fede txarrekorik edo eskubide-abusurik egin.
- b) Informatzaileak behartuta daude komunikatzen dituzten gertaerak edo jokabideak ahalik eta zehatzen deskribatzera, eta deskribatutako egoerari edo frogak lortzeko zantzu objektiboak buruz eskuragarri dagoen dokumentazio guztia eman behar dute.
- c) Informatzailea izango da elkarrizketaren erantzule, segurtasun-neurri egokiekin, bere komunikazioa identifikatzen duen kode alfanumerikoaren erantzule eta haren erabileraren erantzule, soilik Barneko Informazio Sistemaren arduradunarekin harremana mantentzeko eta informazio garrantzitsua gehitzeko.

9. JAKINARAZITAKO JOKABIDEA EGOZTEN ZAIEN PERTSONEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK



Ordenamendu juridikoaren aurkako jokabidea egozten zaien pertsonak honako eskubide eta betebeharrak dituzte:

- a) Gertaerak egiaztatzeko eta, oro har, barneko komunikazio-kanalaren kudeaketa osoan ahalik eta diskrezio handiena izateko eskubidea.
- b) Aurkeztutako komunikazioari buruzko informazioa berehala jasotzeko eskubidea, salbu eta, modu arrazoituan eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera, egitateak egiaztatzeko sekretua gorde behar bada.
- c) Zuzenean edo zeharka erreferentzia nominalak dituen gomendiorik edo ondorioz ez egitea, komunikatutako egitateak ezagutzeko eta iritzia jasota uzteko benetako aukerarik izan ez duten bitartean.
- d) Inori informaziorik ez ematea eta datuak ez lagatzea, harik eta egitateak egiaztatzeak komunikatutako jokabidearen egiantza edo segurtasuna agerian uzten ez duen arte. Agintaritza judizial edo diziplinazko agintaritza eskudunari datuak jakinarazteak ez du esan nahi aldez aurretik arduradunari jakinarazi behar zaionik.

10. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Komunikaziorako barne-kanal hori aplikatzearen ondoriozko datu pertsonalen tratamendua honako hauek xedatutakoaren arabera arautuko da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena; 3/2018 Lege Organikoa, urriaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa; eta otsailaren 20ko 2/2023 Legearen VI. tituluko aurreikuspenak (2/2023 Legea, Arau-urratzei buruz eta ustelkeriaren aurka informatzen duten pertsonak babesteari buruzkoa).

11. BARNEKO INFORMAZIO-KANALARI BURUZKO INFORMAZIOA

Arrasateko Udalaren webgunean, hasierako orrian eta erraz identifikatzeko moduko atal bereizi batean informazio egokia argitaratuko da, argi eta erraz eskuratzeko moduan, ezarritako barneko informazio-kanal ororen erabilerari buruz, bai eta kudeaketa-prozeduraren funtsezko printzipioei buruz ere.

12. BABES-BALDINTZAK

Arau-haustek komunikatu edo ezagutarazten dituzten pertsonak babes-eskubidea izango dute, baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:

1. Arrazoizko arrazoiak daudenean pentsatzeko aipatutako informazioa egiazkoa dela komunikatzeko edo jakinarazteko unean, nahiz eta frogak eztabaida ezinik aurkeztu ez, eta informazio hori otsailaren 20ko 2/2023 Legearen aplikazio-eremuan sartzen dela.
2. Komunikazioa edo zabalkundea aurreikusitako eskakizunen arabera egin denean.



Berariaz geratzen dira aurreikusitako babesetik kanpo honako hauen berri ematen duten pertsonak:

1. Barneko informazio-kanalen baten bidez edo aurreikusitako arrazoiren batengatik onartu ez diren komunikazioetako informazioak.
2. Pertsonen arteko gatazkei buruzko erreklamazioei lotutako informazioak edo informatzaileari eta komunikazioan edo jakinarazpenean aipatzen diren pertsonen soilik eragiten dieten informazioak.
3. Jendearentzat erabat eskuragarri dauden informazioak edo zurrumurru hutsak direnak.
4. Araudi honen aplikazio-eremuan sartzen ez diren ekintzei edo ez-egitei buruzko informazioak.

Ekintza edo ez-egitei buruzko informazioa modu anonimoan jakinarazi edo jendaurrean ezagutarazi duten pertsonak, ondoren identifikatu badira eta eranskin honetan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, deskribatutako babeserako eskubidea izango dute.

13. ERREPRESALIAK DEBEKATZEA

Berariaz debekatzen dira errepresalia dakarten ekintzak, barne hartuta errepresalia-mehatxuak eta errepresalia-ahaleginak araudi honetan aurreikusitakoaren arabera jakinarazpena aurkeztzen duten pertsonen aurka. Errepresalia da legeak debekatzen duen edozein egintza edo ez-egite, edo, zuzenean edo zeharka, horiek jasaten dituzten pertsonak desabantaila partikularrean jartzen dituen tratu kaltegarria dakarrena beste baten aldean, lan- edo lanbide-testuinguruan, informatzaile izateagatik edo publikoki ezagutzera emateagatik.